

EGASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

2. Zka.

Gasteiz, 1993 Urtarrila



Uribarri:
natur erreserba

Gasteizko krosa



SUHILTZAILEAK, SU ETA GAR

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Beti Zuri Begira

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) - GASTEIZ




Instauratzen
Tania & Maito
**ALAITU
EZAZU
BEGIRADA**
2.550 Pta.



Zergatik ez

Macintosh?



Macintosh Classic

4Mbko RAM
40 Mbko Disko gogorra
Floppy 1,44 (Mac/PC)

Stylewriter
inprimagailua
105.000 Pzta.

Macintosh LC

4Mbko RAM
40 Mbko Disko gogorra
14" Kolorezko
Monitorea

Floppy 1,44 (Mac/PC)
154.000 Pzta.

BEZ sartu gabe



Apple Computer
Banatzaile Baimendua

BILBOMICRO

Bilbo

Colón de Larreátegui, 25 Av Basagoiti, 52
Tfnoa: 4 23 02 13

Algorta

Arrasate, 6
Tfnoa: 4 60 95 91

Donostia

San Francisco
Tfnoa: 42 32 27

Gasteiz

San Francisco
Tfnoa: 28 41 33

GEU Gasteiz

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

**1691 Postakutxa
GASTEIZ**

Zuzendaria
Joseba Gorostiza

Erredakzio-batzordea
Iñigo Barruso
Xabir Etxaniz
Mikel Garmendia
Txema Millan
Patxi Salaberri

Publizitatea
Martin Rezola

Maketazioa
Blanka Agiriano
Alex Badillo

Argazkilariak
Lukas Etxeberria
Joseba Olalde

Kolaboratzaileak
Agurne Aizpitarte
Asier Garro
Iñaxio Lopez de Arana
Txipi Ormaetxea

EUSKARA-GASTEIZ.
Geroa Elkarrekin Lantzen
taldearen babesarekin

5.000 Ale

Lege-Gordailua
VI-582/92

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain
hartzten bertan adierazitakoen
erantzunkizunik

Euskara kontzientziatua

Astiro bada ere, euskara gero eta gehiago zabaltzen ari da Gasteizen; kale, taberna, enparantza, etxe,... nonahi entzuten da gure hizkuntza, eta, pozgarriago dena, nornahiren ezpainetan gainera: umeeek ama eta aitarekin, neskek mutilekin, gazteek beraien artean, nagusi eta aiton-amonek euskaraz hitzegiten dute... Zerbait falta zitzaigun, halere: Gasteizko aldizkaria gure hizkuntzan idatzia. Eta hona hemen, Olentzero bezala euskal opariz beteta, Geu Gasteiz-en lehen zenbakia abenduan plazaratua.

Eta orain? Badugu euskara kalean eta gure aldizkaria kioskoetan. Baina hori eta da euskara hitzegitea Gasteizen? Hortxe dugu galdera.

Oraindik, zoritxarrez, erdera da nagusi gure artean eta, batez ere, penagarriagoa dena zera da: euskaraz dakitenek, askotan ez dute erabiltzen eta umeeek eskoletan euskaraz ikasi arren, gero kalean erderaz dihardute.

Denok dakigu -batzuk izan ezik!- euskara ez dela ingelesa edo frantsesa. Euskara geure-geurea dugu eta ezin profesionalki bakarrik erabiltzeko utzi. Esaten dugun bezala, Euskal Herriaren arima da eta arima galduz gero, zer letorkioke Euskal delako Herri honi?. Horrexegatik da egia abestiak kantatzen duena: euskara hilez gero ez nuke nahi bizi.

Euskara ikastea eta hitzegitea, beraz, euskaldunen izpiritua, kontzientzia eta bizia birbiztu, mantendu eta zabaltzea da.

Ikuspuntu honetatik, euskara ikasteak, lehendabizi, gure hizkuntzarekiko errealitate sozial, kultural eta politikoaren kontzientzia hartzea eragiten du. Azterketa motibatzaile honetatik segituz, bigarren helburua, herri-euskalduntzea lortzeko giro eta taldeetan parte hartzeko modu bat bezala dakarren aukera argitzean datza. Hirugarrenik, euskara ikasteak ekintzak egitea eskatzen du. Azkenik, euskararen ikaskuntzak helburutzat du, baita ere, egoeraren ebaluazio kritiko eta iraunkorra garatu eta gauzatzea. Ez dira nahiko norberak hizkuntz gaitasun hutsean egindako aurrerapenak; inguruan duen eragina ere oso aberasgarria da.

Hori da, nire ustez, euskararen kontzientzia hartzea: geure errealitatek euskara ikastea eta euskaraz geure errealitatea ulertzea. Soziolinguistikak esaten duen bezala, gauzak hizkuntzaren arabera ulertzen dira. Eta hau da Geu Gasteiz-en pedagogia: Gasteizko errealitatean euskara landu eta gure hiriko mundua euskaraz ulertu.

Honela, euskara ez da bakarrik hizkuntza huts bat izango, gure Euskal Herria eraikitzeko bide nagusia baizik.

Felix Placer Ugarte

Aldizkari hau dohain, debalde, banatzen da. Jaso nahi baduzu bete ohar hau eta bidali 1691 posta kutxara.

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA ETXEAN DOHAIN JASO NAHI DUT

IZENA:

DEITURAK:

KALEA:Zenb.:Pisua:.....

Kode postala:

HERRIA:



Postariak ekarriak

Kaixo lagunak:

Modu labur batez izan arren nere "Ongi Etorri" beroena bidali nahi dizuet. Euskal Kulturaren aldeko lanean honelako ekintzak pauso haundi eta sakonak dira eta geratzen diren oinhatzak ezabaezinak.

Orain ausartuko naiz esatera zer nolako aldizkaria espero dudan: irudimenez josita, zabala, ausarta, gaztea eta benetan inporta zaizkigun asuntuez arduratzen dena. Euskal Kulturak bere oinarriak izan ditzake, baina dena ez dago idatzita, guztiz alderantziz, bide berriak jorratu egin behar dira, bide gazte eta aberatsak. Beste aldetik, oso interesgarria izan daiteke jakitea ea zer nolako gaiak kezkatu edo gustatzen zaizkion jendeari horietaz jarduteko, eta noski, "pajarik" gabe mesedez. Neri: musika, zinea, liburuak, kondairak, proiektuak, ibilbideak, komikiak, e.a. gustatzen zaizkit. Beno, nahikoa da, zuek egileak zarete eta askatasun osoa duzue duzue nahi duzuen egiteko. Guk gure neurrian gure kolaborazioa emango dugu, eta jakina, gure laguntza osoa.

Bizitza luze eta oparoa opa dizuet.

Javier Martinez.

OHARRA:

"Postariak ekarriak" atal honetan, zuen berri jakin nahi dugu. Idatziguzu nahi duzuna kontatuz. Espazioa izango da jarriko dizugun muga bakarra. Eskutitzak gehien jota 20 lerrokoak izan behar dira eta bertan zure izena, abizenak eta nahi izanez gero zure lanbidea jar itzazu.

HEMEROTEKA

«Historia agortaraztea erabaki dugu, historiak gu agortarazi aurretik»

HERTZAINAK Taldea. Egunkaria, abuztuak 6.

«Ederra, itsusia edo erotikoa izate hori barruko kontua da»

Joseba Apaolaza. Ganbaran Bai teleaioaren aurkezlea.

«Ez daukat batere argi egindakoaz damaturik nagoenentz»

Santos Iñurrieta. Pintorea

«Gasteizen tiroa jo didate garondo profesionalen»

Agustin Ibarrola. Eskultorea.

«Ekimen publikoari esker 700tik gora etxebizitza eraikiko dira, beharrik handiena duten herritarren arlo horretako eskariari erantzuteko asmoaz»

Gasteizko Udaletxea

«Arabarra izanda, ezin zaio euskarari ukorik egin»

Ana Lucia Billate. Aktorea. Euskara Maitea taldearen partaidea.

«Gasteiz hiri zinematografikoa da, behar adina esplotatua izan ez bada ere»

Karra Elejande. Aktorea

«Arabako Arte Ederretako museoak aspaldidanik txikia gelditu da. Beharrezkoa da handitzea»

Iñaki Diaz Balerdi. Pintorea.

«Euskaldunak Afrikatik datoz»

Ismail Drame. Etorrin afrikarra.

ANBOTO

**TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA**

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

PAKO ALAIZA, Industria

KALEA MINTZO

Beherapenak



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfnoa: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

KALEA MINTZO

I N K E S T A

Urte osoan zehar beherapen erakargarriek maiz tentatu arren, benetako merdealdiak Urtarrilekoak izan ohi dira. Estreinatu berri dugun urte honetan ere, beharrak, aukerak nahiz kontsumismoak bulzaturik erosketa franko egiteko gaude. Oraingo honetan benetan merezi ote duen jakin nahi izan dugu.

Hona hemen galderak eta jaso ditugun erantzunak:

- 1- *Urtarrileko merkealdietan erosketarik egiten al duzu?*
- 2- *Egin izan dituzun erosketa horiekin pozik geratu izan zara normalean?*

PEDRO LITERI. Pintatzailea.



- 1- Ez bereziki, erostekotan, beharrezkoa dudan arropa erosten dut.
- 2- Ez dakit, baina, agian gauza bera garestiago salduko dizute, iruzurraren antza hartzen diot.

ANA MARI FERNANDEZ DE ARANGIZ.

Koadro pintatzailea



- 1. Batzutan bai, maialk, jertseiak, bularretakoak, kuleroak eta abar erosten ditut.
- 2. Batzutan bai, onak atera zaizkit. Mekealdietan ere gauza politak badaude. Halere. uste dut engainuak ere izan daitezkeela. Denbora pasatzeko, dibertitzeko edo zer egin ez dakigunean joaten gara merkealdietara.



MOBILIARIO kide
apaindura

Cercas Bajas, 27 - Tfnoa.: 14 41 95 - 01008 GASTEIZ



zalu
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!

Prado 20

Tfnoa: 945-288248 Faxa: 945-253291

PAKO ALAIZA. Industriala



1. Ez. Normalean kirol arropa erabiltzen dut eta Frantzian erosten dut, prezio onean gainera.
2. Ez. Ez dago kalitaterik. Dakigunez, egun, eskaintza handia da eta eskaria berriz txikia. Ondorioz, merkealdiak urte osoan dauzkagu. Berez, Urtarrileko merkealdirik ez dago. Biltegietan gordeta egon den generoa, lau eta bost urtetan askotan, jartzen da berriro salgai. Azoketatik bueltan dabilen arropa izaten da maiz. Artikulu berriak, kalitatezkoak, ez dituzu bertan aurkituko. Hau da nire esperientzia, behintzat. Horregatik ere ez dut erosten merkealdietan.

JOSU OLANO. Dendaria



1. Bai, joaten naiz. Behar dudana arropa Urtarrilean erosten dut.
2. Kalitate aldetik onak dira. Modan ez dagoen edo saldu ez den generoa, biltegietan dagoena, ateratzen dute merkealdietan. Erosleok, berriz, batzutan beharrik gabe eta bestetan beharrik eraginda joaten gara erostera.

FRANCISCA. Jubilatua



1. Ez, ez, ez, nik behar dudanean erosten dut.
2. Bata merke bat erosi nion ilobari beherapenetan ona zelakoan, gaur bertan garbitu dut eta erabat izorratu egin da. Badakizu, zuhurraren poltsak bi zulo. Nahi duten gauza bakarra guk erostea da.

ASCEN GARCIA. Administraria



1. Bai, ikusmiran behintzat ibiltzen naiz.
2. Denetik dago. Badaude prezioak merkatzen dituzten lekuak eta baita arropa merkealdietarako soilki ekartzen duten tokiak ere. Aken hauetan kalitate eskasagoa eskaintzen dute.



Bagare
 EUSKAL C TOKIA
 Kutxileria, 62 - 01001 Gasteiz
 945 - 25 10 84

LAN EGIN EZAZU
EUSKARAREN ALDE

Bazenekien...?

... Kutxilleria kaleko Bendaña Jauregiaren eraikuntza-ezaugarrien artean gotiko berantiarra eta platereskoa nahasten direna?

... Sarrerako ate nagusia, eskaileretako ganga eta jauregia inguratzen duen galeria hiru elementu ikusgarri eta interesgarrienak direna?



... "Caballero de la Banda" bihurtu ahal izateko kapare eta aitonen semeak edota gerran eta erret etxean hamar urtez zerbitzatutakoak izan behar zutena?

... Bandakide ezagunenetarikoa, alferez nagusiaren graduarekin, Pedro López de Ayala (1332-1407) Gasteiz eta Toledoko alkatea eta Gaztelako Kantzelaria izan zena?

... 1332an, Arriagako Kofradiak Gaztelako erresumari Araba ematean, Alfontso XI.ak Gasteizen egin zuen egonaldian "Orden de los Caballeros de la Banda" delakoa Bendaña Jauregian sortu zuena?

... Bertan ageri diren blasoak Eskoriatza-Eskibel, Lopez de Arrieta eta Martinez de Maestu familienak direna?

HADÉ EUSKALTEGIA

Evira Zulueta, 4 (Prado parkearen ondoan) • GASTEIZ



LARRUKI
Larruaren
Artisautza

KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK

Kutxilleria, 26
Tfnoa: 28 38 86

01001-GASTEIZ

GASTEIZKO SUHILTZAILEAK SU ETAGAR

«Nik haundia naizenean suhiltzailea izan nahi dut»



Betidanik izan dira miretsiak, haurren artean batez ere. Nork ez dio bere amari sekula esan suhiltzailea izan nahi duela? Hori umeen betiko ametsa bada ere, ez da inolaz ere umekeria suteak eta bestelakoak «hiltzen» ibiltzea. Baina guzti honi buruzko berri zehatzagoa izateko Gasteizko suhiltzaileek Agirre-landan duten parkera abiatu gara Aintza, Jon Andoni, Iñaki, Fernando eta Carlos solaskide izan ditugularik.

■ «Norbaiti zerbait erretzen zaionean, segunduak minutuak eta minutuak orduak iruditzen zaizkio» ●

Zerk bultzatu zintuzten suhiltzaile izatera?

Niri betidanik gustatu izan zait suhiltzailea izatea nahiz eta ni ez izan suhiltzailea izatea amets egiten duten haur horietako bat. Lan honetan, gainera, nolabaiteko pribilegio batzuk badauzkagu, esaterako, etenik gabeko lan iharduna, 7 egunetan 12 orduz lan egin ondoren, 7 jai egun baititugu.

Asko kostata baina azkenean lortu nuen nik suhiltzaile sartzea. Orduan hasi nintzen suhiltzaile, hori gustoko nuelako. Ez dago besterik.

Ni tailer batean ibili nintzen lanean. Garai horretan suhiltzaile hasi zen mutil bat ezagutzen nuen. Berak eman zidan lanaren nodik norako guztien berri. Berehala ohartu nintzen lan hori nirea baino politagoa eta hobea zela.

Ni ez naiz hemengoa, Bizkaiko Mungia-koa baizik. Suhiltzaile izateko lanpostu bat eskaini behar zutena jakin nuen. Hona etorri eta gaingitu nuen hautaketa-froga.

Zeintzu dira suhiltzaile izateko bete beharreko baldintzak?

Hasteko, 18 eta 30 urteen arteko adina izan behar du suhiltzailea izan nahi duenak. Gainera, batetik, zenbait azterketa fisiko eta kultural gaingitu behar du. Bestetik, suhiltzailegai guztiek lanbide bat izan behar dute ikasita, adibidez, igeltseroa, elektrizitatea, zurgintza, iturgintza edo dena delakoa. Nahiz eta hemen egin ditugun ikastaroei esker denok gauza guzti horiei buruzko ezagupenak izan, lanadi bakoitzean langintza desberdin bateko pertsona batek egon behar du, bada ez bada ere. Gai batean edota bestean iaioa

den pertsona bat beti ondoan izatea oso inportantea da.

Zeintzu dira suhiltzaile batek izan behar dituen ezaugarriak?

Oso sasoi onean egon behar du beti. Hori lortzeko, hemen egunero ordubeteko entrenamendua egiten dugu. Bestalde, suhiltzailea ezin da pertsona beldurtia izan. Bertigoa gaingituz ez duen batek ere ez du lekurik suhiltzaileen artean, zintzilik denbora asko egiten dugulako.

Ba al dago emakumerik Gasteizko suhiltzaileen artean?

Udaltzaingoan sartzeko hautaketa probak desberdinak badira ere, suhiltzaile lanpostuetarakoak berberak dira gizon eta emakumeentzat. Horien barruan oso proba fisiko gogor batzuk egoten dira. Hori da Gasteizko parkean emakumerik ez izatearen arrazoia. Ez dago, beraz, inolako diskriminaziorik.

Guk poz-pez hartuko genituzke emakume suhiltzaileak baldin eta sexu biontzako amankomunak diren probak gaingituko balituzte.

Nolako harremana duzue gasteiztarrekin?

Txarra, Gasteizko jendearekin dugun harremana txarra da. Hemengo jendeak zera pentsatu ohi du gutaz: gauza gehiegi apurtzen dugula, ur gehiegi botatzen dugula, berandu azaltzen garela eta ezer ez egiteagatik ordaintzen digutela. Oso erraza da kritikatzeko eta gaizki egiten dena bakarrik kontutan hartzea.

Norbaiti zerbait erretzen zaionean, segunduak minutuak eta minutuak orduak iruditzen zaizkio. Guk gehienez bost minutu behar ditugu Gasteizko edozein lekutara iristeko.

■ «Suhiltzaileak oso sasoi onean egon behar du beti» ●



den-dan
haltzariak

Gerardo Amesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

ordatz itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Gasteiztarrek sarritan deitzen al diete suhiltzaileei?

Bai, dudarik gabe. Adibidez, duela bi urte 2.588 ekintzatan parte hartu genuen. Baina, egia esanda, gero eta dei gutxiago jasotzen da hemen. Zergatik hori? Ba, beharbada, gurea larrialdetarako zerbitzu bat denez, premiazkoak ez diren kasuetan 12.500 pzta. kobratzen dugulako. Esaterako, ate bat zabaltzeko deitzen digutenean, 12.500 pzta. ordaindu behar dizkigute, hori arriskurik ez duen egoera dela uste delako. Harrigarria izan badaiteke ere, hori bera gertatzen da leku guztietan.

Nolakoa da zuen ekipamendua?

Gure ustez, orokorrean ona da. Estatuari dagokionez nahiko maila onean gaudela uste dugu.

Ni alemaniako Bremen hiriko suhiltzaile parketan egon naiz eta, nere iritzi, hemengo ekipamendua eta tresneria ez dira hangoak bezain onak, estatu mailan nahiko maila polita badugu ere. Han kamioiak maizago aldatzen dituzte eta gainera, merkatuan dagoen materialik onena erosten dute beti.

Zuen lan eremua noraino iristen da?

Guk Araba osoan egiten dugu lana eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Burgosen lur zati banatan. Oraindik ere hau Arabako suhiltzaile parke bakarra da, baina laster zabalduko dute beste bat Laudion.

Zuek uste al duzue egokiro lan egiteko behar adina segurtasun-neurri duzuela?

Segurtasun neurririk egon badago. Ekipamenduak, lehen esan dugun bezala, nahiko onak dira. Baina hori luze hitz egiteko gaia da. Dena den, segurtasun neurriak beti izaten dira oso erlatiboak, beharbada, zu ohartu gabe, munduko okerrik handiena egiten ari zarela. Esate



uholdea edota trafiko istripuak direnean. Aurrekoek gain, igongailuak zabaldu ezina, itotakoen gorpuak erreskatatu beharra sortzen denean eta abarretan ere deitzen digute.

Zein da zuen lanean bizi izan duzuen esperientziarik bitxia edo xelebreena?

Ni behin joan nintzen etxe bateko laugarren pisuko leiho batean zegoen katu bat erreskatatzera. Gu hurbildu ahala, gero eta urduriago zegoen katua. Gugandik oso gertu zegoenean, beste leiho batera salto egiten saiatu zen, baina lurrera erori zen eta gero ihes egin zuen txistu bizian kalean barrena.

Beste behin lankide bat eta biok etxe batean sartu ginen eta kristoren txakurtzar batekin egin genuen topo. Zer egin genuen? Ba, gu txoko batean eseri ginen eta denbora piloa eman genuen txakurrari begira berak gurekin beste hainbeste egiten zuen bitartean.

«40 urtetik aurrera gure lanerako gaitasuna ez da ordurartekoa» ●

baterako, baliteke sua itzaltzen ari zaren bitartean, zure gainean erortzeaz dagoen sapiaz zu ohartu ere ez egitea. Gure arazorik nagusia zera da: gu joaten garela leku guztietara bertan zer gertatzen den jakin gabe eta gainera, inork ez digu ezer argitzen, gu agertzen garenean jende guztiak alde egiten duelako.

Zein ekintzatan parte hartzen duzue zuek maizenik?

Egoera askotan da premiazko suhiltzaileon laguntza, besteak beste, hauexek: suteak, haize bolada handiak,

Zein ekintzatan partu hartuko zenukete gustora?

Guk 18 urteko 19 neska atsegin handiz salbatuko genituzke sute batetik. Baina horretarako politikak eta goxoak izan beharko lukete, e? Gainera, handik ihes egin ezinik egon beharko lukete. Horrek oraindik gehiago izutuko lituzke. Orduan, gu leihoak puskatzen ikusi eta pozaren pozez hartuko gintuzkete. Gero gurekin eskaileratik behera jaistean zera pentsatuko lukete: «hau izan da, dudarik gabe, niri inoiz gertatu zaidan gauzarik onena»

GILTZA ARBA
ZERRAILDEGIA
LARRIUNETARAKO ZERBITZUAK 24 ORDUZ
zerrailak, giltzak, atek kotxeak...

Jose Mardones, 7
01004 GASTEIZ

Tfnoa: 945-26 57 29

**HEGOALDE**
euskaltegia.

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ

Zein ekintzatan ez zenuke parte hartu nahi?

Erradiazio isurketa batean, dudarik gabe. Inoiz holakorik gertatuz gero, engainatuta joango gara, seguru.

Ikusi al duzue inoiz zuen bizitza arriskutan?

Bai, askotan. Kutxileria kaleko etxe batean behin kriston sutea gertatu zen. Bertako teilatua behera egiten ari zen nire lankide bat bere gainetik igarotzen ari zen bitartean. Hurrengo etxeke ormara iritsi eta oraindik bere oinen azpian zegoen teilatua behera egin zuen erabat. Bera txiripaz atera zen bizirik handik.

Ni behin edifizio bateko 5. pisuan nengoela, eskailera apurtu zitzaidan eta handik behera erori nintzen. Pisuko eskailearen hutsunetik behera nindoan ezinbestez. Orduan, 2. pisura iristean, ahal izan nuen moduan, mangerari eta barandari oratu nien nire indar guztiekin. Horri esker atera nintzen bizirik handik.

Zenbat irauten du suhiltzailearen bizitza profesionalak?

Iraun, iraun, ba 64 urtetaraino irauten du, baina 40 urtetik aurrera gure lanerako gaitasuna ez da ordurartereko berbera. Dena dela, beste guztiek egiten duten lan berbera egin behar dute, horretarako erabateko ahalmena ez badaukate ere. Hemen 55 urte baino gehiago dituztenak 3 besterik ez dira. Horiek ez dira gehiegi ateratzen hemendik. Baina hemengo suhiltzaileen %50ak 33 urtetik 36ra bitarteko adina dauka. Beraz, hemengo asko iritsiko gara batera 50 edo 60 urtetara. Orduan, nor aterako da suak itzaltzera?

Zuen lanbidea gustatzen al zaizue?

Bai. Lan honek satisfakzio asko ematen digu besteei lagundu egiten diegulako. Baina badu alde txarra ere, zoritxarrak eta oinazeak beterik ez ditugula ikusten, alegia.


Sutea gertatuz gero kontutan izateko aholku batzuk

Lehenago eta behin, etxean izan ditzakezun arriskuak jakin eta konpondu behar dituzu lehenbailehen. Beraz, prebentzioari arreta berezia eskaini behar zaio, gero suterik itzali beharrik ez izateko. Honela, instalakuntza elektrikoa gaizki baduzu, hobe duzu berehala aldatzea. Etxean duzun kea kanporatzeko kanpaiak suterik eragin badezake, erosi suitzalgailu bat eta eduki beti erabilia izateko prest.


Zure etxean suterik sortzen bada eta ez badakizu zer egin, deitu berehala suhiltzaileei. Sutearen iturburua gasa bada, ezerean aurretik, itxi bere pasabidea. Edozein arrazoi dela medio, ezin baduzu gasaren pasabidea itxi, atera zaitetz sutea dagoen gelatik eta itxi ondo atea. Atea ixten dugu bi arrazoiengatik: batetik, suak oxigeno gutxiago izango du eta horrela ez du horrenbeste indar hartuko, bestetik, sua nekezago hedatuko da geste geletara. Gero, joan zaitetz beste gela batera eta ondo itxi atea oraingoan ere. Horrela egon suhiltzaileak etorri arte.

Ateak ixtea oso garrantzitsua da keak jende gehiago hiltzen baitu, beroak edo garrek baino. Hortaz, atea ondo itxiz gero, zailagoa izango da gas toxikoak inork irenstea.

EKINTZEN NOLAKOTASUNAREN ARABERAKO SAILKAPENA



GUZTIRA 2.588 ekintza



Muluma
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta

Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

LIBURUAK




ALTUNA, J. -
 APELLANIZ, J.M. -
 BARANDIARAN, I.
Estudio de las pinturas de Zubialde (Alava). Resumen de los resultados, Gasteiz, Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila, 1992, 80 orrialde, 500 pztza.

made in Gasteiz

ABELLA Y GARCIA DE EULATE, Alfonso M^a: *Por Alava a Compostela en las rutas de Europa. Un camino de peregrinación alternativo*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila, 1992, 72 orrialde, 300 pztza.



RUIZ DE APODACA, M^a Isabel: *Las actas de Juntas en Alava y las obras históricas de Joaquín José de Landazuri*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila, 1992, 77 orrialde, 200 pztza



RIVERA BLANCO, Antonio: *La ciudad levítica. Continuidad y cambio en una ciudad del interior (Vitoria, 1876-1936)*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila, 1992, 496 orrialde, 1.500 pztza.



ELKAR



FAGOR

SUKALDEKO
 HALTZARIAK

Manuel Iradier, 37
 Tfnoa: 25 45 88
 Faxa: 27 81 93
 01005 - GASTEIZ




ALBENIZ
 MOBILIARIO



Cercas Bajas, 8
 Telefonoa eta Faxa 28 74 82
 01008 GASTEIZ

Uribarriko natur erreserba



**Arabako
Diputazioak
Uribarriko
urtegiko zati
batean
erreserba bat
sortzeko
erabakia hartu
du. Besteak
beste, ur-maila
garantizatuko
da urte osoan
eta behatokiak
ipiniko dira
hegaztiak
ikusteko.
Zorionak.**

Udaren hondarrean, eguna laburtu, gaua hoztu, eta eguzki goxoaren bila gero eta zale gutxiago ikusten den garaian, bestelako «jendekaia» azaltzen da Uribarriko urtegian. Bakarka hasieran, multzoka gero, ia oharkabean, mota askotako hegaztiek bisitatzen gaituzte urtero-urtero hutsik egin gabe. Bidaiari amorratuak dira eta herrialde eta kontinenteetako mugak gaindituz, mundu txundigarri baten enbaxadoreen gisa, gure lurraldea aukeratzen dute, negua igartzeko batzuk, Afrikarako bidean atsedentoki abenturazaleenak, eta bizitoki egonkorra alferrenek.

Zingiren murrizketa eta urtegien ugalketa

Betidanik izan dute gune hezeek (laku, zingira, padurak, e.a.) gaisotasun-sorburu izatearen fama txarra eta horregatik, gizakia, jo ta su ibili da ekosistema harrigarri hauen kontra ia erabat desagerterazi arte. Mende honetan, esaterako, penintsulako mapan erdiak baino gehiago galdu dira eta,

Arabako lautadan ere, ez dira hain aspaldikoak euriteekin osatzen ziren padura, zingira eta lakuak.


Gaitzerdi, azken garaiotan eraikitako urtegi artifizialek galdutako inguru naturalak ordezkatzeko dituzte neurri apal batean bada ere. Izan ere, urtegiko uraren erabilerak eragiten duen urmailaren gorabeherak ez dio ertzetako landarediari sustraitzen uzten. Horregatik ageri dira bazterrak leku askotan gorrituta, inolako sostengurik gabe.

Dena den, azken urteotako eguraldi euritsuari esker ur-mailak ez du halako beherakaka bortizik jaso eta, batez ere malda gutxiko lekuetan, Zadorra ibaiaren bokaletan kasu, sahas, ihi, eta beste urzaleek halako estalki goxo bat sortu dute bertan jan, errun, eta lo egiten duten hegaztien gozamenerako. Beraz, esan liteke urtegia «Naturalizatzen» ari dela eta edozein zingira naturalen itxura eta baldintzak sortzen. Honela, poliki-poliki, paradisu ttiki bat jaio da Arabako bihotzean.

iparretik hegora turista hegadunak

1.- Bidaizaleentzat atsedentoki.

Beren sorterrria Ipar Europako lurraldeetan duten hegazti askok leku epelagoetara jotzen dute negutea igarotzeko, honela milaka kilometrotako hagaldia izugarriak eginez. Maiz hala iruditzen bazaigu ere, ez da hotza bidaia hauen eragile zuzena, janari eskasia baizik. Izan ere beren lumaje trinkoari esker hegazti hauek gai dira hotzik gorrienari aurre egiteko elikadura ziurtatua edukiz gero. Baina neguan, bere ohizko bizilekuetan lurzoruak eta urazalak bolada



luzeetan irauten dute izoztuta eta ezin izaten dute mantenua lortu. Gure bazterretan, berriz, nahiz eta hotz ikaragarria egin, ia ezinezkoa da urtegiak hormatzea eta, beraz, beti dute mokia non sartu, belarrak, arrainak, edo xomorroak jateko. Ibilaldi luze hauetan, mendez mende, gune heze jakin batzuk erabili dituzte atsedeneku moduan etaparen amaieran behar bezala berrindartzeko eta bidaiari berriz ekiteko. Zoritxarrez, pausaleku hauek gero eta urrunago daude elkarrengandik askotxo desagertu direlako eta, hartara, egin beharreko etapak luzeagoak eta arriskutsuagoak dira. Batzuentzat, oso migrazio luzeak egin behar dituztelako, asko aurreratzen da irteera data, eta, besteentzat berriz, gertuago joan behar dutelako, atzeratu. Eta gertatu ere, gertatzen da espezie batzuk hegorantz doazen garaian beste batzuk bueltan daudela sorlekuetara habia egiteko sen miragarriak bultzatuta. Honela, dirudiena baino aire trafiko konplexuagoa suertatzen da hilabete batzuetan zehar gure kaskoen gainean.

2.- Negulekua hainbatentzat.


Uribarrin azken urteotan egindako zentsoek erakusten dutenez gero eta hegazti gehiagok aukeratzen dute Araba neguko oporlekutzat. Beti egongo dira Afrikara joan nahiago duten «txoriburu» egoskorak, baina poztekoa da ikustea asko eta asko ohartu direla hemengo abantailez eta baldintza lasaiez. Oso adierazgarria da ingurua Ehiza-Erreserba izendatu zenetik zentsoek izan duten gorakada nabarmena. Gainera sekulan ikusi ez diren espezie «exotikoak» agertzen hasiak dira noizean behin. Bestalde, kontutan hartu behar dugu jatorri desberdinetako aleak elkartzen direla negua

pasatzeko eta udaberrian aldegin baino lehenago, harreman berriak, ligeak, e.a. urratu dituztela horrela truke genetiko aberasgarri bat gertatzen delarik. Taldekoitasuna ere oso nabaria da sasoi honetan taldeak babeska ematen baitio banakakoari edozein erasoren aurrean.


3.- Alferrak negu eta uda.

Ezin da ukatu urtegiaren balio ekologiko handiena migratzaileentzako atsedenekua izatean datzala, ez dela egon populazio habiagile garrantzitsu bat; udaberriaren etorrerarekin, nor bere sorterrira. Hala ere, lehen aipatutako naturalizazioari esker urtetik urtera espezie eta ale gehiago ikusten dira sahasi eta lezkadietan beren habiak txukun- txukun egiten eta gero txitak hilaran amaren atzetik plitiplasta jolasean. Adituen esanetan ur-maila egonkorra eta gutxieneko lasaitasuna bermatuz gero (gogoratu babazorrook zeinen maite dugun aisialdia urtegiaren ematea) ugalketarako ere leku ezin hobea izango litzateke Uribarriko hau.

IKUSI



TAKOAK



Euskara gure kulturaren oinarria da.
Horrexegatik egunez egun aurrera
goaz euskara arabar guztion
hizkuntza izan dadin.

DIPUTACION
FORAL DE ALAVA



ARABAKO
FORU ALDUNDIA

GASTEIZTIK SAHARARA

Karabanan

Otsailaren azken aurreko astean abiatuko da Gasteiztik Sahararantz III. Karabana, Aljeriako basamortuan, Tinduf inguruan, 200.000 saharai errefuxiatuta bizi diren kanpamentuetara ailegatzeko asmoaz.

Antolatzaileak, Sahararen aldeko Plataforma eta Euskadiko R.A.S.D.-aren Lagunen Elkarteak, uda aurretik hasi ziren proiektu hau prestatzen eta Azaroaren 14ean eman zuten ezagutzera nahiko bitxia gertatu zen prentsaurreko batean. Izan ere, karabana honen jaiotza publikoa TUVISAren "urbano" baten barruan gertatu zen. Errez ulertuko dugu bitxikeria honen arrazoia argitzen badugu Gasteizko bi urbanok egingo dutela Sahararako ibilbidea karabana honetan. Egia da bide erdia besterik ez dutela egingo. Urbanoak ez daude prest basamortuko pista kaxkar eta aretsuak zeharkatzeko. Karabanakide bi hauek Oranen -Aljeriako iparraldean- geldituko dira, bertan ikasten eta sendatzen ari diren saharar umeen zerbitzuan. Hammadako -Tindufeko basamortuan- bideak kamioiak eta bereziki prestatutako ibilgailuentzat dira eginak. Haraino ailegatu baino lehen karabanak eta karabaneroak 1800 kilometro bete beharko dituzte, eta ez beti asfaltutik.



Aintzinako karabanan modura, honek ez du bakarrik eramango errefuxiatu kanpamentu horietan hain beharrezkoak diren ibilgailu eta garraiatuko duten zama; medizina, elikadura, haurrentzako arropak etab. Karabanan paper nagusia leku batetik bestera berriak eta mezuak eramatea da. **III. Karabana** honek elkartasun eta

GASTEIZ eskalategia:
Errege Katolikoak, 15-C • Tfnoa: 28 89 22

PINTO eskalategia:
Pintoreria, 74 • Tfnoa: 28 97 80

ZALDIARAN eskalategia:
Zaldiaran Plaza, 16 • Tfnoa: 24 49 05

EUSKARAZ



JANTZIAGO EUSKALDUNAGO



Saharara abiatuko den karabanaren aurkezpena Azaroaren 14.

Luis Ziarrusta

esperantza mezu bat eraman nahi die saharar errefuxiatuei Euskal Herritik. Jakina denez, 1991.eko Otsailerako egin behar izan zen NBek agindutako Mendebaldeko Saharari buruzko autodeterminazio erreferenduma. Tamalez, urtebete beranduago Hassan II.aren presioak nazioarteko legalitatearen gainean ezarri dira eta erreferenduma eta horren inguruan antolatutako Bake Egitasmoa bertan geldituta dago. Horregatik, aurtengo karabana **Autodeterminazio Erreferenduma Saharaientzat!** lemapean antolatu da.

Hain prezeski, autodeterminazio erreferenduma eta Bake Planaren defentsarako sortu zen Sahararen aldeko Plataforma erakunde. Bertan hogeiren bat baino gehiago erakunde, sindikatu, gazte eta auzo elkarterekin batera pertsona independente multzo dexente bat biltzen da, alderdi polikoen gainetik. Honelakoa izan nahi ere Karabana. Edozein instituzio, erakunde, enpresa pribatu, edo hiritarrek har dezake parte projektu honetan.

Oraindano, zenbait udaletzek — Amurrio, Legutiano, Agurain — eta

enpresa garrantzitsuk —TUvisa edo KAS bezalakoek— egindako aportazioak dira deigarrienak, eta Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik espero da ere laguntza dexentea. Baina antolatzaileek ilusio handinez komentatzen dituztenak hiritar xehe askoren aportazioak dira. Berrehun kilo ezti, batek; ez dakit zenbat kutxa botikaz bete, beste batek,...ezinezkoa denak aipatzea. Dirua ere oso garrantzitu da. “*Jendeak emandako diruari esker kamioi txiki bat erosi behar dugu...*” komentatzen digute pozaren pozez. Baina diru gehiago behar da. Karabanak bere mezua helarazteko gasoleoa, Alikantetik Oranerainoko bidaia... gastu asko ordaindu behar da. Beraz badakizue, kolaboratu nahi baduzue hauze da kontu korrontearen zenbakia: **Lan Kide Aurrekia 012.0.04063.0**. Eta informazio gehiagorako Probintzia Plaza 7-3. esk. helbidera edo 28 28 08 eta 23 45 45 telefonoetara jo dezakezue.

A! Bidairako plazak beteta daude, baina zure kamioia han utzi nahi baduzu oraindik apunta zaitetzke.

Egurrezko jostailuak

Didaktika - materiala

Opariak

Benito Ginea, 2
Tfnoa: 25-75-14
GASTEIZ

hAurRAk

Batzuk esaten dute, oraindik ere ardiak eta belarrak hitz egiten dutela elkarrekin. Ardiak larrera ateratzen direnean, belarrak esaten omen die: —Aurrera eta goxoago, aurrera eta goxoago.

Ardiak ibiltzen dira pixka batean batetik bestera, eta azkenean:

—Beee, beee... —eginez, bertan gelditzen dira.

Beee, beee.... horrek....»Bertan goxo, bertan goxo» esan nahi omen du.

(Kontu zaharrak, Jose Arratibel)

Gizonek Su zeukaten eta Otsok ez zeukan Su. Otso eta Zakur lagun handiak ziren. Egun batean Otsok esan zion Zakurri:

—Joan hadi Herrira txinpar bat lapurtzera.

Zakurra pertsonengana inguratu zen. Hauek jana eman zioten, ferekatu zuten eta haurrek Zakurrekin egin zuten jolas. Orduan Zakurri txinparta lapurtzea ahatzu zitzaion, pertsonekin geratu zen eta harrez gero Zakur eta Otso ez dira lagunak.

(Indioen ipuin batean oinarrituta)

Ipuiak

Elefanteak, orohar, naturalean diren baino txikiago marrazten dira; baina, arkakusoak naturalean diren baino handiago.

(Jonathan Swift)



GERO GEROKOAK.
ORAIN
EUSKARAZ
BIZI!

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

Peru Kalea, 8
Tfnoa: 22 60 50

Jose Mardones Kalea, 8
Tfnoa: 26 35 40



IGARKIZUNAK

Tipitaki tapataki
zer dela eta zer dela
datorrenean doana
doanean datorrena?

(karramarroa)

Argia goizean
iluna arratsean.

(eguna)

Hankak ditu
eta mugitzerik ez,
janaria du
eta jaterik ez.

(mahala)

Larruzko etxolan
bost anai-arreba,
egunez barruan
gauetz kanpoan.

(zapata)

Jantzirik ez eta poltsikoa
bai. Nola izan daiteke?

(kangurra)

Azal gainean azala
eta gainean azala;
erraz moztu labanak
sukaldariak daukana.

(kipula)

Kanpoan horia barrua horia
eta bihotza erdian.

(muxika)

Txuria jaiotzean
gaztetan berdea,
zahartzarora iristean
jantzi horia darama.

(banana)

Zuria sortu,
zuria izan,
pobre eta aberatsen
janarian.

(gatza)

Etxetik irten gabe
denei hots egiten die.

(karpata)

VD&BERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
 - Helduentzat
 - Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • 01012
Tfnoa: 24 49 65

GASTEIZ

ditare
MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETABARRUKO ARROPAK
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

PERTSONAIAK

Gasteizko gida egiten hasi gara eta bertan zenbait pertsonai ezagun sartu nahi ditugu, baina ordenagailuak hamar pertsonairen datuak desordenatu egin dizkigu.

Ba al dakizu ezker aldeko pertsonai hauei eskubiko zein ezaugarri dagokien?

Ea, ba, anima zaitetz eta hasi loturak bilatzen!



MIKAELA PORTILLA	Zeledon
BERNAOLA	irratia
KONPA	idazlea
MAITE ZUÑIGA	zesta punta
PABLO LASO	musika
IÑAKI LANDA	politika
MARITXU BERRITSU	historia
IBILTARIA	eskultura
M ^a JESUS AGIRRE	saski baloia
I. ALDEKOA	atletismoa



KIROLAK



Gasteizko Krosa



Cervecería Alemana

SALTXITAK
 KAZOLATXOAK
 SANDWICHAK

Gerardo Amesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) • Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

Hiri krosa, milatik gora korrikalari.

Ohiturari jarraituz, pasa diren gabonetan, Gasteiz hiriko erdi maratoia burutu zen, bertan 1000tik gora korrikalarik parte hartu zuelarik. Partaideen prestakuntza urtetik urtera hobetuz doa eta XV. edizio izan den honetan partaidetza mantentzea lortu da. Aurten 823 korrikalarik helmugara heltzea lortu du.



Garai bateko moda.

«Kirola guztiontzat» lemapean sorturiko herri edo hiriko maratoiek, gaurregun kutsu herrikoia neurri batean mantentzea lortu dute. Hala ere, Gasteiz Hiriko krosa garai bateko 5000tik 1000 partaidetara pasatu da.

Edozein modutan, azken bolada honetan partaidetza bere horretan mantentzen ari da. Badirudi, garai bateko moda desagertu egin dela. Orain parte hartzen dutenen artean %90ak lasterketa bukatzea lortzen baitu.

Hortaz, esan daiteke, antolatzaileen aldetik lehenetsun handiagoa ematen zaio helmugaratzeari, parte hartzeari baino. Horrek dakarren ondorioetarikoa da partaidetza murriztea.

Beste aldetik, lasterketaren izenak berak ere, nolabaiteko ofizialtasuna hartu du, XV. Gasteiz Hiriko Erdi Maratoia, hain zuzen ere. Hasiera bateko «Kros Herrikoia» izena alde batera utziz.

Bi faktore hauek neurri handi batean eragin nabarmena izan dute korrikalariek izena emateko orduan. Dena den, urterik urte proba finkatuz doa gure hirian.

Hiritik kanpo.

Aurtengo Krosari dagokionez, esan beharra dago proba ia-ia bere osotasunean hiritik kanpo burutu dela. Korrikalarien ustetan, honek asko gogortu du lasterketa. Hala ere, korrikalari gehienak Mendizorrotzako helmugara ailegatu ziren.

Antolakuntza zirkuitoan zehar ezin hobea izan bada ere, helmugan huts nabarmenak egin ziren. Bertan aurreko postuetan zihoazen korrikalariak nahastu egin ziren antolatzaileen erruz.

Helmugako puntu beltz horri, ikusleen presentzia eskasa ere gehitu behar zaio. Beharbada, honen arrazoia hiritik kanpoaldean egitea izan daiteke.

Mendiko bizikleta: bi kirol bat eginda.

Bizikletaz mendian gora eta behera ibiltzeko grina, atzerrian aspaldian hedatuta bazegoen ere, txirrindularitza Euskal Herrian azken urteetan bizi izan duen gorakadarekin batera, gero eta txirrindulari-mendizale gehiago ikus daiteke han hemenka txirrindularitza eta mendia erabat elkargarriak direla agerian utzi nahirik. Beraz, bada, ondoren doakizue kirol honetan tajuz aritzeko aholku eta xehetasun jakingarri zenbait, bizikleta gainean mendian abiatu nahi duenari lagungarria izango zaiolakoan.

Edonola ere, praktikotasunari (dotoretasuna zokoratuta utzi gabe jakina) eman behar zaio lehentasuna, ezein soineko jazteko orduan.

Dena dela, jazkera desberdinak badaude egon, bakoitzak premia edo egoera bati egokitua, txapelketa batean lehiatzeko eta txango huts bat egiteko soineko berezituak daudelarik. Hona hemen kirol polit bezan interesgarri honetan iharduteko beharrezko diren hainbat jantzi edo gailuren zerrenda:

KASKOA: Ezinbestekoa da beti baina, bere premia areagotzen da egin beharreko ibilbideak nekazago eta arriskutsuago diren neurrian. Edozen kasutan kaskoak buru osoa estali behar du.

ALKONDARA edo **KAMISETA:** Komenigarria da kotoizkoa izatea, horrela, gorputzak isurtzen duen izerdi guztia bere baitan hartzen baitu.

JERTSEIAK: Eguraldiaren latzari aurre egiteko jantzi ezin hobea da, bestalde oso jertsei ona eta erosoak izaten dira aurreko aldean eta sorbaldetan ehunezko geruza sintetiko eta impermeable bat daramatenak.

PLUMIFEROAK: Neguan edo oso eguraldi kaxkarra egiten duenean erabili ahal da jantzi hau. Kirol honetan iharduteko mahuka kengarriak eta barruko sintetikoak dutenak dira egokiagoak benetako lumentako osaturikoak baino, haizez eta lokatzez aise hondatzen baitira azken hauek.

TXUBASKEROAK: Mota askotako txubaskeroak dira, guztiz impermeableak direnak gutxi izan arren. Dударik gabe, goretex edota horren antzeko materialez sorturikoak ditugu egokienak, kanpotik urari bidea eragozten dioten bitartean, izerdia kanpora ateratzeko erretzasun guztiak ematen baititu.

GALTZAK: Gorabehera askoren menekoa dugu jazkera hau, hauexek besteak beste: zertarako den (lehiaketa edo txangoaldi huts baterako, adibidez), jarlekuaren ezaugarriak, zeintzu diren, nolako eguraldia egiten duen, zer nolako ibilbidea egingo dugun eta abar.



GALTZERDIAK ETA OINETAKOAK: Galtzerdiak aukeratzeko orduan, kontutan izan finegiak ez direla egokienak eta are gutxiago neguan bagaude. Oinatakoei dagokienez, oinaren itxurari eutsi behar diote, beren azpiak zurruna behar duelarik.

ESKULARRUAK: Behar beharrezkoa da eramatea, batez ere, bizikleta gainean orduak eta orduak ematen denean.

BETAURREKOAK: Komenigarria da erabiltzea zeharkatzen diren bideak hautsez eta harriaz beterik daudenean.

MUGA

Adriano VI, 4
Tfnoa: 14 63 25
GASTEIZ

**LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA
KARTOGRAFIA, BIDAIK
ETA MENDI GAJETAN**

Navarrería, 20
Tfnoa: 22 25 29
IRUÑEA

15

EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOA.
Principal Antzokian 7,45etan.
SAN ANDRES ABESBATZA.
Araba Kultur Aretoan 8etan
HITZALDIA.ERRENTERRITIK
TXINARA TXIRRINGAZ.
Bagare Euskal Tokian, 8etan.

17

ANTZERKIA: TOM SAWYER-EN
ABENTURAK. SAMANIEGO
TALDEA.
Principal Antzokian, goizeko 12,30etan
eta arratsaldeko 6,30etan.

18

SAN ANTON BEZPERAK.
San Pedro Elizan, arratsaldeko
5,30etan.
SAN ANTON ZOZKETA. Enparantza
Berria, arratsaldeko 6etan.
HITZALDIA: «Ephialte, Apolo eta
Hercules-en artean: Jainkoen
garaipena munduaren sorreran.»
(adinekoentzat) Luis de Ajuria Aretoan
arratsaldeko 5etan.
ZINEMA: LOUIS MALLE ZIKLOA, «As-
censor para el cadalso» filma. Luis de
Ajuria Aretoan, arratsaldeko 8etan.
MAHAINGURUA: Droga trafikoari
buruzko hausnarketa. ASKAGINTZAK
antolatua. Araba Kultur Aretoan,
7,30etan.

19

ZINEMA: LOUIS MALLE ZIKLOA,
«Los Amantes» filma. Luis de Ajuria
Aretoan, 8etan.
ASTEARTE MUSIKALAK: Jesus
Guridi Musika-eskolako ikasleak. Ara-
ba Kultur Aretoan iluntzeko 8etan.

20

ZINEMA: LOUIS MALLE ZIKLOA, «El
fuego fatuo» filma. Luis de Ajuria
Aretoan, iluntzeko 8etan.

21

ZINEMA: LOUIS MALLE ZIKLOA,
«Zazie en el metro» filma. Luis de
Ajuria Aretoan, 8etan.
MUSIKA: «Orquesta Sinfónica de
Acordeones de Bilbao», Principal
Antzokian, 8etan.

22

ZINEMA: LOUIS MALLE ZIKLOA, «Un
soplo en el corazón» filma, Luis de
Ajuria Aretoan, 8etan.
ABESBATZA: Santa Lucia abesbatza.
Araba Kultur Aretoan, 8etan.
ZARZUELA: «Doña Francisquita»,
Principal Antzokian gaueko 10,30etan.

23

ZARZUELA: «Marina», Principal
Antzokian, arratsaldeko 7,30etan.
ZARZUELA: «Gigantes y cabezudos»,
Principal Antzokian, gaueko 11etan.
MUSIKA: Udal Banda eta Udal Folklo-
re Akademia. Principal Antzokian,
goizeko 12,30etan.

24

ANTZERKIA: Fuegos Fatuos Taldea,
Principal Antzokian, arratsaldeko
6,30etan.

25

HITZALDIA: «BIBLIA», Andres
Ibanezen eskutik, Luis de Ajuria
Aretoan, arratsaldeko 5etan
(adinekoentzat).
BIDEOA: «La Patagonia», (Atanasio
Garcia). Luis de Ajuria Aretoan,
arratsaldeko 7,30etan.
ANTZERKIA: «La señorita Julia» Prin-
cipal Antzokian 8,30etan.

26

ASTEARTE MUSIKALAK:
Symposium Musicum. Agrupación ins-
trumental. Araba Kultur Aretoan
arratsaldeko 8etan.
ANTZERKIA: «La señorita Julia» Prin-
cipal Antzokian, 8,30etan.

ALISAS

TABERNA
EZ DAGO
PINTXORIK
KUTXI • GASTEIZ



*Nork berea.
esperantoa denona*

ARABAKO ESPERANTO ELKARTEA

Zapateria, 29 • Tfnoa: 22 05 70



27

HITZALDIA: Arabako Diabetiko Elkarte. Araba Kultur Aretoan, arratsaldeko 7,30etan.

ABESBATZAK: 3. Adinako Abesbatzak. Principal Antzokian, arratsaldeko 5,30etan.

28

ABESBATZAK: 3. Adinako Abesbatzak. Principal Antzokian, arratsaldeko 5,30etan.

29

HITZALDIA: «Oxigenorik gabe 1992.an Everestera egin zen espedizioaz» Iñurrategi anaien eskutik. Bagare Euskal Tokian arratsaldeko 8etan.

MANUEL IRADIER ABESBATZA: Araba Kultur Aretoan, 8etan.

30

MAGIA: Montty eta bere ikuskizuna (Hula, hula, hula). Principal Antzokian, arratsaldeko 7,30etan.

31

SARI BANAKETA: Sabino Arana Fundazioak emandakoa. Goizeko 12etan Principal Antzokian.

ERAKUSKETAK

Pajarita Aretoan, 17tik 31ra arte: JUAN ARMENTIA, argazkiak.

San Prudencio Aretoan, 15tik 31ra arte: PILAR ALBAJAR-ANTONIO ALTARRIBA. Argazkiak.

Olagibel Aretoan (Enparantza Berrian), 14tik 28ra arte: FERNANDO CALLEJA, pintura.

Caruso Kafetegian, Otsailaren 6ra arte: MICHEL VILLAVERDE. Pintura.

CM2-en (Araba Jauregia) 14tik Otsailaren 6ra arte: JULIO HERNANDEZ GRIMA. Teknika mistoa.

Espacio 40 aretoan (Korreria, 40) hilabete osoan zehar: erakusketa kolektiboa.

Artelarre Galerian (San Francisco 18), 7tik 28ra: «Araba, bere pintoreek ikusita». Oleo eta akuarela.

Rubens Galerian (Manuel Iradier 9-A) Otsailaren 15ra arte: BERISTAIN. Pintura.

Trayecto Galerian (Ramiro de Maeztu, 10) Martxoaren 6ra arte: MARISA FERNANDEZ. Eskultura.

San Prudencio Aretoan (San Prudencio 22) hilabete osoan zehar: «Gasteiz, errusiarrek pintatuta» eta «Loreak, bodegoiak, paisaiak eta itsasoa»

Luis de Ajuria Aretoan (General Alava, 7) 17tik 31ra arte: JUAN MIEG. Pintura.

BESTELAKOAK

Sukaldaritza Ikastaroak:

19-20-21 ean eta 26-27-28an Olarizu Jatetxean arratsaldeko 6etatik 7etara (helduentzat).

13-14, 20-21, eta 27-28an Olarizu Jatetxean goizeko 11etatik 12etara (eskola-umeentzat).

«San Prudencio» Arabako XXX. Mus Txapelketa: Astelehen eta asteazkenetan Urtarrilaren 11tik Apirilaren 17ra arte



GIZARTE ETXEAK

EUSKARAZKO EKITALDI EGITARAUA

HITZALDIAK

Olerkien emanaldia. Gerardo Markuleta eta Patxi Zubizarretaren eskutik. Data eta lekua zehaztu gabe oraindik.

IKASTAROAK

SUKALDARITZA IKASTAROA. Hastapenak eta hobekuntza. Astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan 6etatik 8etara Iparralde Gizarte-etxean.

XAKE IKASTAROA. Hastapenak eta hobekuntza. Asteazkenetan 6etatik 8etara Judimendi gizarte-etxean.

ZAPATAGINTZA IKASTAROA. Asteazkenero 8etatik 10etara Judimendi Gizarte-etxean.

DANTZA IKASTAROA. Fandango, arin-arin, zortziko,... Ostegunetan ala asteartean 6etatik 7,30etara edo 7,30etatik 9etara Landatxo gizarte-etxean (Canpillo)

YOGA IKASTAROA. Astearte eta ostiral goizetan 8etatik 10etara. Judimendi gizarte-etxean.

BUZTIGINTZA TAILERRA. ostegunetan 3,30etatik 5,30etara edo 5,30etatik 7,30etara El Pilarreko gizarte-etxean.

UMEEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK

Mahai joku lehiaketa, antzerkia, kankak, jokuak, irteerak,... larunbatetan 10etatik 12etara Europa gizarte-etxean.

Izena emateko edo argibide gehiago nahi izanez gero gizarte-etxeetara jo. MATRIKULA EPEA: Urtarrilaren 15a arte.

ANTOLATZAILEAK:

GASTEIZKO UDALA

Geroa Elkarrekin Lantzen, AEK, IKA, BAGARE, Magisteritza Eskola, HABE, IRALE, HEGOALDE, UDABERRIA, BERTSO ESKOLA, KOLDO MITXELENA institutua eta EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ



EUSKARAZKO MEZAK

Larunbatetan:

6,30etan El Pilar Elizan
7,30etan Erreparadoretan

Igandetan:

11etan Estibalitzen (ele bietan)
11,30etan Jesus Langile Elizan.
12etan Erreparadoretan



**JATETXEA
ERRETEGIA**

**OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK**

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ

ZAPATEGIA - ARTISAUTZA



Herreria, 86 • GASTEIZ

Gabonetan egindako gehiegikerien ondorioz pilatutako kiloak ez gehitzeko janari arintxo eskaintzen dizuegu oraingo honetan. Hona hemen gure errezetak. On Egin!

KALABAZA KREMA

Osagaiak (4 pertsonarentzat):

Kilo erdi kalabaza gorri
Bi kipula
Lau azenario
Porruak
Berakatz ale bat
Piper berde erdi bat
Tomate naturala (baso txiki bat)
Bi patata
Baso erdi olio
Ura
Gatza

Hasteko kipula, azenario eta porru txiki txiki egingo ditugu; berakatz alea eta piper berdea, berriz, lauzpabost zatitan. Ondoren lapiko batera baso erdi olio botako dugu eta berotzen denean bertan jarriko ditugu aurretik zatitutako barazkiak. Dena eragin eta su motelean utziko dugu egiten.

Bitartean kalabaza hustu egingo dugu eta mamia zatitu. Barazkiak biguntzen direnean kalabaza mamia eta patata zatituak botako ditugu eltzera. Dena ondo nahastu eta pixka batean sutan izango dugu etengabe eraginez. Honi ura gehitu beharko diogu estali arte. Irakiten duenean gatza eta egindako tomatea bota. Su motelean utzi ordu t'erdia batean, tarteka gatzean probatuko dugularik.

Azkenik, turmixean pasatuko dugu.

SOLOMILOA PERRETXIKOekin

Osagaiak (lau pertsonarentzat)

Kilo bat solomiloa
Kilo erdi perretxiko
200 gramo urdaiazpiko
3 goilarakada tomate
3 goilarakada haragi zuku
4 goilarakada esnegain
1/4 litro oliba olio
Gatza
Gurina
Piper hautsa

Solomiloa lau xerratan zatitu eta, gatza eta piper hautsa bota bakoitzari. Zartaginean olio berotan gorrituko ditugu eta gero bandeja batera atera.

Zartaginean dugun olio berotara perretxikoak botako ditugu. Ia eginda daudenean, gurin pixka bat, urdaiazpikoa, tomatea, haragiaren zuku eta esnegaina erantsi. Su motelean pare bat minututan izan ondoren, saltsa eder hau haragiari gaintetik bota eta bero-bero atera.

MADARIAK ARDOTAN

Osagaiak (4 pertsonarentzat):

4 madari eder
Errioxako 2 litro ardo
400 gr. azukre
Ardo goxoa (basotxo bat)
Bi kanela zotz

Madariak zuritu, lapiko batean jarri eta ardoarekin estali. Ondoren azukrea eta kanela botako ditugu, eta su bizian ordu erdi inguruan irakiten laga. Madariak ilun samar ikusten ditugunean, sua moteldu eta ardo goxoa erantsi. Honela luzaroan edukiko ditugu egosten ardoa urritu arte.

SUKALDE TXOKOTIK

Chimbo Jatetxea


Cuchilleria, 57 • Tfnoa: 27 28 91
GASTEIZ

URTEGI-ALDE

SAGARDOTEGIA

Urrunaga (Araba)
Tfnoa: 45 50 67

1992



EUSKADIKO LEHEN KOMUNIKAZIO- TALDEAK HAMAR URTE BETE DITU

Hamar urtetan ametsa egi bihurtu da.


1982. urte arte ilusio hutsa zen.

Gaur egun, lau irrati eta bi Telebista-kate dituela, Euskal Irrati-Telebista Euskadiko lehen Komunikazio-taldea da.

Atzo goizean bertan gertatu zela dirudi. Baina hamar urte joan dira herri honen historian.

Badugu oraindik zereginik asko.

Proiektu berriak. Ilusio berriak...



HAMAR
URTE

Caja Vital Kutxaren TeleCaja *plus* berria



Den-Dena Dauka Ba al daukazu zuk?

Bakarrik hitzegitea falta zaio.
Badauzka kreditu txartelaren abantailak.
Badauka 6000 txartelaren erabilgarritasuna.
Badauka edozein ezustetarako asegururik.
Badauka aparteko diseinua...
eta Caja Vital Kutxaren babes bere.
TELECAJA PLUS berria.
Den-dena dauka
Ba al daukazu zuk?

Argibide gehiago
900-440.440
doanezko telefonoan

KONTUTAN HARTZEKO ABANTAILAK



1. Behar duzun guztietan, kreditu automatikoa eta berehalakoa eskuragai izatea.

5. Eskudirua nahiz kredituzkoa ateratzea estatuko 17.000 toki desberdinetan, eta aurki Europa osoan ere.



2. TeleCajak lagun dituen saltegi, jatetxe, tailerretan... ordaintzea.

6. Txartela lapurtu edo galduz gero, edonolako estualdi zein ustekabe alboratzea. Horretarako aski da 16 22 77 telefono zenbakira deitzea, bera indargabetezkoa.



3. Ordainbidea beti aukeran izatea: eskura, hilabeteka, epeka...

7. Trenez, hegazkinaz, itsasontziz... egindak joan-etorriak ordaintzea, eta istripu aseguria milioietakoa izatea.



4. Txartelaren bidez, erositakoan lapurretarako 3 hilabeteko aseguru berezia.

8. Zure saldoa ikusi, estraktoak eta taloitegiak eskatu eta zure gastuen kontrola eramatea.

Caja Vital  Vital Kutxa

Gasteiz eta Arabako Kutxa